

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak direla enpresa batek egin behar dituen funtsezko jarduerak, bere negozio-ereduak funtziona dezan.

- ***Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?***

Funtsezko jarduerak jostailuen bidalketak, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak dira.

Jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utzi daitezke, eta beste batzuk ez. Ezin daiteke besteen esku utzi “know how” (ezagutza) delakoarekin lotutako guztia.

Balio-proposamena sortzeko egin behar diren funtsezko jarduerak eta prozesuak, horien artean lehentasunak ezarriz.

Gure funtsezko jarduerak hiru taldetan banatzen dira:

1. Ekoizpena
2. Arazoak konpontzea
3. Plataforma edo sareko jarduerak

Gure enpresa zerbitzu bat ematean oinarritzean, enpresaren webgunea eta online denda mantentzeko eta sustatzeko jarduerak egitean datza funtsezko jarduera.

Jostailuak lortzeko, enpresa askorekin jarriko ginateke kontaktuan eta jostailuak prezio on batean erosten saiatuko ginateke. Horretarako, enpresa askorekin jarri beharko ginateke kontaktuan eta gero, eskaintza hobereana egiten digun enpresan erosiko genituzke jostailuak.

Arazoak sortzen badira, arazo horiek aurrera eramateko irtenbideak proposatuko genituzke. Hau bideratzeko, astean baten bostok elkartuko ginateke bilera moduko bat egitera. Bertan, bakoitzak bere proposamenak esango lituzke eta azkenean arazoari aurre egiteko ideia bat lortuko genuke.

Horrez gain, gure kasuan, sare sozialak ondo kuadetzea esentziala da, eta publizitate estrategia egokia lortzea ere. Horretarako pertsona ezagunak gurekin kolaboratzeak asko lagunduko luke.

